

# EUSKAL HERRIKO KIROL MARKAK ETA ERREKORRAK

<https://kiolerrekorrak.eus/>



**2022ko kirol errekorrak**

**2022ko marka berriak**

.....

## ATLETISMOA

Emakumeak

(librean)

.....

Donostia, 2022ko abenduaren 21a

## ABSOLUTOAK / EMAKUMEAK / Librean

PROBA	ATLETA	URTEA	KLUBA	MARKA	DATA	LEKUA
<b>100</b>	Cristina Castro	1969	Zorn	11.36	1992.07.13	Salamanca
<b>200</b>	Nerea Bermejo Yanguas	1998	PAT	23.36	2021.06.05	Iruñea
<b>400</b>	Blanca Lacambra	1965	Mic.V	51.53	1986.06.20	Madril
<b>800</b>	Maite Zuñiga	1964	HHZ	1.57.45	1986.06.01	Sevilla
<b>1.500</b>	Maite Zuñiga	1964	Aurre	4.00.59	1992.08.08	Bartzelona
<b>3.000</b>	Amaia Piedra	1972	Ort	8.58.67	2002.08.20	Donostia
<b>5.000</b>	Estitxu Urrutia	1971	Adi	15.19.68	1998.07.01	Barakaldo
<b>10.000</b>	Trihas Gebre	1990	B il	31.55.01	2019.04.13	Burjassot
<b>Maratoi erdia</b>	Trihas Gebre	1990	B il	1.09.51	2018.06.23	Olomouc
<b>Maratoia</b>	Elena Loyo	1983	B il	2.28.25	2020.12.06	Valentzia
<b>110 hesi</b>	Teresa Errandonea	1994	BAT	13.04	2021.06.19	Madril
<b>400 hesi</b>	Nerea Bermejo Yanguas	1998	PAT	56.28	2021.06.13	La Nucia
<b>3000 oztopo</b>	June Arbeo Sarriugarte	1999	SCORPIO	9.44.83	2022.05.25	Huelva
<b>Altuera</b>	Marta Mendia Valencia	1975	PAT	1.96	2004.03.06	Budapest
<b>Pertika</b>	Naroa Agirre	1979	ASS	4.56	2007.02.27	Sevilla
<b>Luzera</b>	Tessy Ebosele	1990	RS	6.63	2021.07.18	Tallinn
<b>Hirukoitza</b>	Tessy Ebosele	1990	RS	13.63	2021.08.20	Nairobi
<b>Pisua</b>	Rita Lora Ribas	1973	PAT	16.17	1992.07.13	Ferrol
<b>Diskoa</b>	June Kintana	1995	PAT	57.83	2022.07.20	Corrales de Buelna
<b>Mailua</b>	Nerea Ibinaga Garitaonandia	1999	PAT	60.92	2022.06.04	Iruñea
<b>Xabalina</b>	Nora Aida Bicet	1977	VTM	59.86	2006.08.11	Malaga
<b>5 k ibilketa (ruta)</b>	Iratxe Perez	1983	Vale	23.10	2005.02.06	Viladecans
<b>5 k ibilketa (pista)</b>	Iratxe Perez	1983	Vale	23.26.37	2004.07.10	Gasteiz
<b>20 k ibilketa</b>	Iratxe Perez	1983	Vale	1.38.01	2005.04.02	Rio Mayor
<b>4x100</b>	Lacuey	2000	PAT	44.92	2021.06.27	Getafe

PROBA	ATLETA	URTEA	KLUBA	MARKA	DATA	LEKUA
	Bermejo.	1999				
	Sarasola	2003				
	Wiafe	2002				
4x400	Asensio	1976				
	Lovaco	1972	PAT	3.43.23	1997.07.19	Malaga
	Reinares	1974				
	Bravo	1974				
Heptatlon	Olatz Arrieta	1990	BAT	5279 puntu -		Bartzelona

## 2022ko errekor berriak

3000 oztopo	June Arbeo Sarriugarte	1999	SCORPIO	9.44.83	2022.05.25	Huelva
Diskoa	June Kintana	1995	PAT	57.83	2022.07.20	Corrales de Buelna
Mailua	Nerea Ibinaga Garitaonandia	1999	PAT	60.92	2022.06.04	Iruñea
3000 oztopo	June Arbeo Sarriugarte	1999	SCORPIO	9.44.83	2022.05.25	Huelva

## ALBISTEAK

→ <https://kirolerrekorak.eus/june-arbeok-errekor-berria-ezarri-du-3-000-metro-oztopo-proban/>

### June Arbeok errekor berria ezarri du 3.000 metro oztopo proban

2022.05.28 | ATLETISMOA, EMAKUMEAK, ERREKORRAK, ERRREKOR BERRIA

### Carmen Riaño peraltarrak apirilaren 1ean egindako marka 13 segundotan ondu du durangarrak

June Arbeo Sarriugarte durangarrak 3.000 metroko oztopo probako Euskal Herriko errekor berria ezarri du Huelvako meeting-ean

Orainarte, errekorra Carmen Riaño Aransay (Peralta, 2001) Panplona Atletico (PAT) klubeko atletaren eskuetan zegoen, aurtengo apirilaren 1ean, Palo Alto (AEB) hiriko Stanford Invitational

jardunaldietan ezarri zuena, 3000 m oztopo proban 10 minututik beherako denborarekin (9.57.42) iritsi baitzen helmugara.

Bada, denbora hori xehatu egin zuen pasa den azteazkenean, maiatzak 25, Huelvako meeting-ean, 1999. urteko otsailaren 2an jaiotako June Arbeo durangarrak. Orain, senior mailako marka berria aire librean honako hau da: 9.44.83.

Huelvako 3.000 metro oztopoak lasterketan hautsi zen marka bakarra ez zen izan June Arbeok ondutakoa, izan ere, proba irabazi zuen Alice Marie Genevievek bere herrialdeko errekorra hautsi zuen: 9: 21.41ko marka ezarriz.

Huelvako lasterketaren sailkapena:

1 Alice Marie Genevieve FINOT (1991/2/09), Frantzia Denbora: 9:21.41

2 Aimee PRATT (1997/10/03), Erresuma Batua Denbora: 9:25.48

3 Asimarech NAGA (1999/6/08), Etiopia Denbora: 9:30.46

4 Claudia PRISECARU (1997/9/02), Errumania Denbora: 9:33.41

5 Tugba GUVENC (1994/7/09), Turkia Denbora: 9:37.15

6 Tatiane Raquel DA SILVA (1990/6/10), Brasil Denbora: 9:39.75

7 Amina BETICHE (1987/12/14), Argelia Denbora: 9:41.19

8 Carolina LOZANO (1996/2/27), Argentina Denbora: 9:42.88

9 Clara VIÑARAS (1993/9/08), Espainia Denbora: 9:44.24

10 June ARBEO (1999/2/04), Euskal Herria Denbora: 9:44.83

June Arbeoren errekor berria ez da ezustekoa, izan ere, durangarra aspaldi dabil atletismoaren goi mailan, 3000 metro oztopodunak proban marka bikainak lortu dituelarik:

2021ean egin zituen denborarik onenak

–Marka: 10:02.36. La Nucía (Alacant), 2021/06/13. Iberdrola Liga, Emakumezkoen ohorezko mailako klubaren finala

–Marka: 10:04.13. Tallinn – (EST), 2021/07/08. 13. Europako 23 urtez azpiko Txapelketa

2022an egin dituen denborarik onenak

–Marka: 9:44.83. Huelva, 2022/05/25. XVII Meeting Iberoamericano

–Marka: 10:14.27. Murcia, 2022/05/08. Espainiako 2022ko Txapelketa Unibertsitarioa

–Marka: 10:31.09. Zaragoza, 30/04/2022. Iberdrola Liga Klubak DH Emakumezkoak 1.J – B CAST-SCORP-AAC-LEON

–Marka: 10:48.63. Zaragoza-CAD, 14/05/2022. Iberdrola Liga Klubak DH Emakumezkoak 2. J –

→ <https://kiolerrekorrak.eus/june-kintanak-disko-jautiketaren-errekor-absolutoa-hautsi-du-21-urte-ondoren/>

## **June Kintanak disko jautiketako errekor absolutoa hautsi du, 21 urte ondoren**

2022.07.22 | EHKM, EMAKUMEAK, ERREKORRAK, ERRREKOR BERRIA

<https://kiolerrekorrak.eus/june-kintanak-disko-jautiketaren-errekor-absolutoa-hautsi-du-21-urte-ondoren/>

**Disko jaurtitzaille bakaikuarrak 57,83 metroko jautiketa egin zuen eta bere marka pertsonala apurtzeaz gain, 2001etik Rita Lorak zuen Euskal Herriko errekorra hautsi zuen (57,20)**

Denboraldiari amaiera bikaina eman dio June Kintana Larraza (1995eko apirilaren 12a) atleta bakaikuarrak. Disko jaurtitzailleak 57,83 metroko jautiketa egin zuen pasa den asteazkenean, uztailak 20, Corrales de Buelnako (Kantabria) atletismo proban, eta bere marka pertsonala –2017an Polonian lortutako 56:30 metroak– gainditu zuen, metro batean baino gehiago.

Horretaz gain, 2001etik Rita Lorak zuen Euskal Herriko errekorra apurtzea lortu du bakaikuarrak. Rita Lora Ribas (1973), Barañaingo jaurtitzaille mitikoak, 2001. urteko uztailaren 28an 57,20ko marka egin zuen Malagan. Lorak, 90eko hamarkadan zehar eta 2000ko hamarkadaren hasieran pisu zein diskoko domina ugari eskuratu zituen, oraindik orain Euskal Herriko pisu jautiketa errekorra berea delarik, 1992ko uztailaren 13an lorturikoa Ferrolen: 16,17.

Kintanak beraz, ekainaren 4an egindako 56,20ko jautiketa gainditu zuen, bere marka pertsonala onduz. Lehiaketa bikain batean, Pamplona Atletico taldeko kirolariak 54,45ekin ireki zuen jardunaldia, ondoren jautiketa baliogabea egin zuen eta hirugarren saiakeran errekorra ezarri zuen. Bere baliozko beste bi jautiketak 56,60tik gora joan ziren (56,64 eta 56,71), eta, beraz, Corralesekoa bere bizitzako lehiaketa izan zen.

Bere ibilbideko markarik onenak:

57.83 m (2022)

56.31 m (2022)

56.30 m (2017)

56.20 m (2022)

56.02 m (2022)

→ <https://kiolerrekorrak.eus/nerea-ibinagak-berriro-hautsi-du-mailu-jautiketako-errekorra/>

## **Nerea ibinagak berriro hautsi du mailu jautiketako errekorra**

2022.06.7 | ATLETISMOA, EHKM, EMAKUMEAK, ERREKORRAK, ERRREKOR BERRIA

**Pasa den ekainaren 4an, kirolari nafarrak balentria berria burutu eta Euskal Herriko**

## **errekorra 60.92 metrotan ezarri zuen**

Nerea Ibinaga Garitaonandia, 1999ko otsailaren 26an sortutako kirolari nafarra, urtean zehar bere marka hobetuz joan da etengabe, Euskal Herriko errekorrak bata bestearen atzetik apurtuz.

Urte hasieran (otsailaren 6an), Nafarroako Jaurtiketa Luzeko Txapelketetan hiru modalitate jokatu ziren: emakumezkoen diskoa eta mailua eta gizonezkoen xabalina. Mailuan, Ibinagak proba irabazi eta errekorra lortu zuen (58.52 metro).

Otsailaren 19an, Jaurtiketa Luzeko Negu Espainiako Txapelketa jokatu zen Motrilen eta bertan Nereak 59.19ko marka berria ezarri zuen.

Maiatzaren 18an berriz, Iruñean, kontroleko probetan, Euskal Herriko errekorra ondu zuen ere, 60.22 metroko jaurtiketa burututa.

Azkenik, pasa den asteburuan, lehiatu zen Nafarroako Aire Zabaleko Pista Txapelketa Absolutua Iruñean, eta bertan errekor berria eskuratu zuen nafarrak. Ekainaren 4an, larunbata, arratsaldeko jardunaldian eta ekainaren 5ean, igandea, jokatu ziren proba ezberdinak Larrabide kirolgunean.

Nerea Ibinagak larunbateko jardunaldian hautsi zuen errekorra, arratsaldeko 17:00etan hasi zen mailu jaurtiketako proban jaun eta jabe izan ondoren.

Guztira sei jaurtiketa egin zituen: aurrenekoa zein bosgarrena baliogabetuak izan ziren, bigarreanean 57.84 egin zuen, hirugarreanean 59.00, laugarreanean 57.05, eta seigarren eta azkenekoan burutu zuen balentria, 60.92 metroko jaurtiketa eginda. Hartara, proba irabazi zuen guztira 947 puntu pilatuta eta egindako azken marka horrekin Euskal Herriko errekorra erdietsi zuen berriro ere.

### Probako Sailkapena

- 1 Nerea Ibinaga Garitaonandia (Grupompleo Pamplona At, 1999) Marka: 60.92, 947 puntu
- 2 Patricia Recio Martinez (Grupompleo Pamplona At, 2004) Marka 44.72, 687 puntu
- 3 Leixuri Etxaide Arbizu (Grupompleo Pamplona At, 2004) Marka: 41.68, 638 puntu
- 4 Izaskun Aranguren Yabar (Grupompleo Pamplona At, 2003) Marka: 39.42, 602 puntu
- 5 Paula Ventura Merino (Ederki-Caja Rural, 2006) Marka: 31.03, 468 puntu
- 6 Ana Ferri Jauregui (Grupompleo Pamplona At, 2006) Marka: 27.65, 414 puntu
- 7 Ainhoa Perez De Ciriza Villarroel (Ederki-Caja Rural, 2006) Marka: 26.51, 396 puntu

Nerea Ibinagak 2022ko denboraldian izaniko emaitzak:

60.92 m 22-6-4 Iruñea Nafarroako Txapelketa Absolutua

60.22 m 22-5-18 Iruñea Kontroleko Probak B

59.19 m 22-2-19 Motril Jaurtiketa Luzeko Negu Espainiako Txapelketa

58.52 m 22-2-6 Iruñea Jaurtiketa Luzeko Nafar Txapelketa

58.36 m 22-4-30 Donostia Taldekako Espainiako Txapelketa Emakumeak. 1. Jardunaldia

56.60 m 22-4-10 Iruñea Talde Mixtoko Nafarroako Txapelketa

56.26 m 22-3-19 Logroño Jurtiketa Luzeko Errioxar Txapelketa

49.95 m 22-1-15 Durango Jurtiketako PLP